

EVSKAL
i ZTEGI
LABURRA

Etxebarria'tar Juan Anjel



ET

EUSKAL IZTEGI LABURRA
(E-F)

Etxebarria'tar Juan Anjel

S. Anton'go Katekesia

Euskal-argitalpenak

AGERTUTAKO IDAZTIAK:

1. Phedro'ren Alegiak I
2. Martial'en Ziri-Bertsoak I
3. Phedro'ren Alegiak II
4. Fatima'ko Ama Birjiña ta Umeak
5. Euskal Iztegi Laburra (A)
6. Esopo'ren Alegiak I
7. Agustin Deunaren Eskutitzak I
8. Gurutz-Bidea
9. Phedro'ren Alegiak III
10. Batikano II Batzar-Agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak)
11. Perrault'en Ipuñak (2-garren argitalpena irarteko)
12. Batikano II Batzar - Agiriak (Gizarte artuemonetako bideak)
13. Apuntes de Vasconce (Segundo Curso)
14. Lope de Vega - Bakar-Autuak
15. Liturji - Goratzarreak
16. Jaungoikoaren Agerpena (Batikano-agiriak)
17. Maitale Galdua (olerkiak)
18. Lati-izkuntzaren Joskera (Orixe)
19. Euskal Iztegi Laburra (B-D)
20. Kristau Aziera (Batikano-agiriak)
21. Euskal Iztegi Laburra (E-F)

Urduliz'ko

Protos'tar Jaione'ri:

Urteak aurrera, bakuntasunean
geldi zagoz eta maltzurkeri-izpi
bat gordetzen dozu. Ar gaizuz onean;
euzkaldun jator ez diran orrei . . . irri!

Askotan entzuna dogu Bizkai'ko euskera ederrena Markina aldean egiten dala. Ez noa ukatzen. Gítxi tan ibillia bai naiz lur orretan. Alan be, beste bari ez dautset síñisten orí esaten dausten euskaldun er daldunduei.

Ederrena ez ba'da be, ederra be ederra egiten dal beste tokí askotan, bai, bertotik esango dautsut. Mungía ta inguruko errietan, zelako euskera eder-aberats darabillen! Erderatiko edo erderazko ítz askotx sartzen dabezala? Egía orí ere. Alan be, jatortasuna euskalduntasuna, bízi-bízirik gordeta. Maixuak díra or be, baserritarrak euskera gauzetan. Gítxizat ez ezereztzat daukezan maixu gízajoak... horron causa

Emengo ítz eta esakera asko, Lezama'ko (B) Aiaz tza'tar Karmele'ri zor dautsodaz.

Betiko lez, irarkizunak Gallastegi'tar Kauldi'k eta Erretolaza'tar Joseba Andoni'k, S. Anton'go apaizak arteztu dabez.

Ebaindu.- Lur jota, makilka edo agiraka, norbait itxi: Ebaindu ninduan atzo arek, lagun!

Ebakera.- Ebakitzeko era/ Itzak esateko modua: Inglesen ebakera nastu - samarra da.

Ebaki.- Tresna bategaz gauza bat banandu: Ebaki ori artaziakaz./Tresna zorrotz bategaz egiñiko banaketa: Ebaki bat egin daust orrek aitzoagaz./Agoz esan: Ebaki ondo itzak, batez be gitxi ezagunak.

Ebasle.- Lapurra.

Ebatsi.-Lapurtu: Erakutsi niri txanponak, ez dizkizut ebatsiko-ta.

Edale.- Edan egiten dauana.

Edan.- Zintzurretik urdaille-
ra urak-eta igaro: On egin daizula janak eta ez gaizki edanak.

Edari.- Edaten dana.

Edatu.- Zabaldu.

Edatun.- Edan ta edan dabilena.

Eden.- Corputzean sartuaz eriotza edo kalte andia dakarren gauzakia.

Eder.- Begirako edo belarri-rako atsegingarri dana: Esanak eder, egiñak lander./Ederra irabazi (norbaiten gogo-biotzak erakarri): Alkatearen ederra irabaztearren maketoai aspaldiko esaten eutsen. Zure ederrarren ekarriko dot (zure naia niganatzearren)./Ederra egin (egitekoren bat egin): Ederra egin daustazu, aparirako neukazan azak, jan daustazuz!/Ederrak emon (berro-berotu, astindu): Ederak emoten eutsazanmaixuak aril

Ederretsi.-Edertzat jo: Ederretsi dau gure aberria./Ontzatzat artu: Gotzaiñak ez ditu ederretsi gure erabakiak

Edergallu.- Edertzeko erabilten dan gauza: Edergallu gitxi ta makallu asko.

Edergarri. - Edertzeko balio dauana: Esaldiaren edergarri antxiñako kontu bixiak sartzen zituan.

Ederki.-Modu ederrean.

Edertasun.- Ederra izatea.

Ederti.-Edertasunezko lanak ikasten edo irakasten dauan jakintza-arloa.

Edertu.- Eder jarri.

Edertzale.-Gauza ederran baten diarduana: Margolari ona, edertzale atsegiña.

Edertzaille.- Edertu egiten dauana.

Edesti.-Errien, gizarteen edo lagunarteen jazokunen azalpena: Euskalerrriaren edesti, zenbat biotz amestil

Edestu.- Itzez jalki.

Edo.- Bereiz-itza: Lau edo

bost./Inguruan, gitxi gura-bera; Zazpiretan etorriko naiatzu. / Antzurrean: Oneitek edo dit

Edontzi.- Edariak artzeko ontzia.



EDONTZI

Edozki.-Ezpanekin zerbaiteguna atara./Umeai esne edanarazteko ontzia.

Ega - Begira: Ego.

Egakari.-Egaz dabillena.

Egal.- Fgoa. / Inguruko bealdea: Mendi egalean jesarri giñan. Itsas-egalean ariziran olgetan. / Gauza baxillatu-egala apurtuta dago itxi or edozein egaletan.

Egan.-Egoai eragiñaz, egoailotuta, aidetik joan.

Egarri.- Edateko irritsa edo bearra. / Zerbaite leia

bizia: Azkatasun-egarriz eta menpetasun gorritz bizi gara.

Egarritu.- Egarria egin, nabaitu: Euskera baztertu, Euskalerrria egarritu.

Egaz.- Egan.

Egazka.- Egan.

Egazkari.- Egaz dabillena.

Egazkera.- Egaz egiteko era.

Egazti.-Ahere azurduna, oin bikoa, lumaduna ta egaz egiteko ego bi dituan.

Egi.- Diranagaz gauzak bat etortzea: Egi da nik diñotzudana. Egi da etorri dala. Egi latz eta garratz. Egi, askorentzat larregi./ Bazter maldatsua: Mendi-egian bizi zan. Itsas-egian ari naz ibilten.

Egiantz.- Egitzat artu leitekena, siñisgarri; Ederra da esan daustazun ipuña, baiña ez dau egiantzik.

Egigai.- Gaiaren azaleko zertzea: Irudi orren gaia baliotsua ta egigaia atsegin-tsua.

Egikera.-Egiteko era. / Egitea bera.

Egikizun.-Egiteko dana.

Egikor.-Egiteko erreza dana.

Egille.- Egiten dauana.

Egin.-Gai bat landuaz zerbaibarri atara. / Egipena: Esan-egiñak, batzuk ziztriñak, besteak bikaiñak.

Eginbear.- Egiteko norberak daukana.

Egintzale.-Egin ta egin diarduana; egiteko prest dagoana.

Egipen.-Egin, egitea.

Egitan.- Egiaz: Egitan diñotsut, euskaldun asko ilten emen, or eta an.

Egiti.-Egia esan egiten dauana; egitan ari dana.

Egitu.- Egi biurtzea, mami-tzea./Egitzat azaldu.

Egiz.- Egitan.

Egiztatu.- Egizkotzat azaldu, emon, sendotu/Egitan etedan jakiteko saiatu.

Ego.-Ega; egaztiak egaz joateko dituen lumak.

Ēgo.- Ēgo-aizea (erri-aizea):
Egotik datorren aizea.

Egodun.- Egoak dituana.

Egoera.- Egoteko era: Gure
euskera-ta, zelako egoera!

Egoitza.- Egoteko tokia.

Egokera.- Egoteko era: Euske-
raren egokera euskaltza-
leena bera.

Egoki.-Eraz datorrena: Zure
eritxi ori ez da egokia./
Zerbait edo norbaiti da-
gokiona: Egoki yatzu le-
kaide-etxe ori zure izake-
ra gogoan artuta.

Egokiro.- Era egokiz.

Egokitu.- Egoki etorri, iarri:
Egokitu egizu euskera
edo zertarako /Batera eto-
rri, bat egin: Zure lagun
ori egokitu yatan atzo
arako bidean.

Egon.- Nunbaiten izan: Nun
egon zara gaur goizean?/
Izan: Jai ederra egon zan
atzo batzokian.

Egonarri.- Eroapena.

Egosi.-Gordin egoana sutan
jarri, uretan, jateko eran
egon artean. / Urdailan
jatekoak zetu ta norbe-
ratu; Gaur ez dot ondo
egosi bazkaria.

Egostaldi.- Janariak urdai-

llean zetu ta norberatzat
kotutea: Egostaldia egiten
etzun dira idiak.

Egotaro Egoteko aldi, eretia:
Egotaro ona daukagu ta
ez gaitzezan emendik igi-
tu (Urduliz).

Egotzi.- Bota: Ari egotzi cu-
tsoen erru guztia,

Eguantz.- Goizaldea: Eguan-
tza da-ta, jagi zaitez oetiki.

Eguazten.- Asteko irugarren
eguna.

Eguberri.- Gabon-aldia.

Eguen.- Asteko laugarren
eguna.

Eguerdi.- Eguzkia bere gin-
gan dagoan garaia, ama-
biak inguruan-edo

Egun.- Argia dan aldia: Egu-
nez eta gauaz/Gaur: Egun
eta beti.

Egunabar.-Goizaldea: Eguna-
barrean joango gara itsa-
sora.

Egundu.- Eguna etorri.

Eguncango.- Egunerokoa.

Egunero.-Egun guztietan.

Egunez.- Egun-bitartean.

Eguraldi.-Otz-beroak: Egural-
di ederra dogu gaur.

Egurastu.- Aizetu: Egurastu
ondo gela au./Ibilli: Goa-
zen egurasten.

Egur.- Zugatzen atala, ebagi

ta gero sutarako oi dana.

Egurille.- Egurgin

gur gin.-Egurra egiten dabi-
llena.

Egutegi.- Urteko illak eta
egunak dakazan orria edo
orri-piltoa.



EGUTEGI

Egutera.- Eguzkitara dagoan
tokia.

Eguzki.- Izar argitsua. gure
izartegiaren nagusia.

Eguzki-begi.- Eguzki-eguzki-
tan dagoan lekua: Sail au
bere eguzki-begian dago.

Eiagora. - Indarrez egiñiko
abots naigabetsua.

Eiza.- Egaztiak, piztiak-eta
billatu ta iltea: Eizatara
urten nintzan atzo.

Eiztari.- Eizatan dabillena.

Ekaitz.- Trumoiak, oiñazta-
tarriak-eta dakazan ortze-
nastatzea.

Ekandu.- Oiko jardukera.

Ekarri.-Ēsaten ari dan lekura
gauza bat eroan: Ekarri
ona makil ori./ Aurkeztu:
Zein arrazoi dakarzu orren
alde?/Emon: Lur onek zi-
tu ugariak ekarten ditu.

Ekarle.- Ekarten dauana.

Ekin.- Bein ta barriz jardun:
Ekin eta jarrai.

Ekiñaldi.- Ekiteko aldia: Bi-
garren ekiñaldian iraba-
zi bear dautsot.

Ekiñalean.-Ekin ta ekin: Eki-
ñalean dabiltz gu il bea-
rrez.

Ekitaldi.- Ekiñean ari: Eki-
taldi ederra egin dogu len
bearrean /Antzerki bate-
ko atala: Iru ekitaldiko
negar antzerkia.

Elai.- Enara: Portugalete'ko
dantzariak 'E l a i - A l a i'
taldean dagoz batuta.

Elburu.- Zerbaiten azken-as-
moa: Azkatasuna, orra
gure elburua.

Eldu.- Norabaiteratu (iritxi):
Eldu gara bide-erdira ta
goazen edantokira./Umota-
sunera eldu (zoldu): Sa-
gar oniek ez dagoz ondo
elduta/Eskua bota(oratu);
Eldu egiozu besotik.

Ele - Berbeta; Euskera gure
elea ta erdera gure iñudea

Eleiza.- Jaungoikoaren jau-
retxea; Eleiza ori utsik
egoten da erria jendez be-
te danetik. / Kristauen ba-
tza, Jesukristo'k sorturi-
koa: Eleiza katolikoa ta
orokorra.

Elerti.- Literatura ikasten
dauan jakintza.

Elestun.- Atzamarrean croa-
ten dan aroa.



ELESTUN

Elgorri.- Orban txiki-gorriak
sortzen dauzan gexoa.

Elikatu. - Osasunari eutsi
janariz-eta; Zeruko mana
gozoaz elikatu zituan.

Elizakoak:- Azken ikurtonak:
Eleizakoak artuta il zan.

Elizbira.- Elizkizun baten,
batetik bestera notin asko
batuta joatea.

Eliz-gela. - Elizako gauzak-
gordetzen diran lekua.

Eliz-ke.- Lurrinkaiia (Azkue,
Lekeitioko Andra...)

Elizkizun. - Eleizan eginiko
jaia. otoitz-aldia, edo.

Elizkoi-Eleizara sari dabile-
na; eleizara joera dauana.

Eliztar.- Eleiza bateko siñis-
teduna.

Elizti -Eleaz diarduan jakin-
tza.

Elkar.-Bata bestearekiko: El-
kar arturik iraungo dogu
bizirik.

Elorri. - Arantzadun zugaz-
ñoa, lore zuriduna.

Eltze.- Lapikoa.

Elur.- Edur: Elur-melur ez
nauk ire beldur.

Elurte.-Elur andia dan aldia.

Emagin. - Aurdunari lagun
egiten dautsona,

Emakume.- Andra: Emakume
-batza.

Emalle.- Emoten dauana.

Eman.- Emon: "Eman", al-
dizkari baten izena.

Emazte.- Andra bere gizona-
rekiko.

Eme.-Aurdun edo ernari ger-
ta leitekena. / Gozoa: Ele
emea, erdera zurea.

Emeki. Gozoro, baretxe: Or-
tik gora joan ta emeki el-
duko zara.

Emen.- Leku onetan: Emen
ez dogu erderarik bear.

Emeretzi.- Amar eta bedera-
tzi.

Emetirengo.- Emetiko alde-
tik bertena: Zein etxean?
Emetirengo aldekoan bizi
da (Urduliz)

Emon-Iñori jaubetasuna itxi:
Emon egiozu orri, zure
idaztia. / Irudi: Uleetatik
gazte emoten dau orrek/
Zer edozertan asi: Nega-
rrari emon eutson/Zerbai-
ten zaleak artua: Politika-
gauzetara emonda bizi da/
emon (asi); Bideari emon
eutson; negarrari emon eu-
tson (asi zan) / Gaiñera
(karta-jokuan): Karta an-
diago bategaz besteari
geiago egin; Iruko urre?
Emon gaiñera.

Enbor.-Zugatzen atal sendo
-mardula.



ENBOR

Ene -Nirea: Ene gardiz (ene
eritxiz. / Arrimena edo mi-

ña adierazteko asperen-
itza; Ene errukarria !Ene,
zelako jendetza.

Enparantza.- Zabal-unea.

Enparau.- Gaiñetikoa; Eroan
bear dozuzanak, enpa-
rauak gorde urrengo bate-
rako.

Entzule. - Entzuten daua-
na, dagoana.

Entzumen.- Entzuteko alme-
na.

Entzun.- Otsak-eta belarriz
jaso: Irrintzi bat entzun
da mendi tontorrean. /Go-
goan artu: Entzun ondo
zer diñotzudan!

Entzute.- Izen andia, ospea:
Sokrates entzute andiko
gizona.

Eortzi.- Lurra emon, lur-
peratu.

Epai.- Auzian artutako era-
bagia; Epai gogorra egin
eutsoen.

Epaikari-Epaia egiten dauana

Epail.-Urteko irugarrean illa.

Epaitu.-Epaia egin; epaipean
jarri.

Epe.- Aldiaren bitartea: Epe
laburrean egingo dautsut /
Epetan, epeak jarrita Epe-
tan ordaintzeko saldu daus-
te dan au.

Epel.- Ez bero, ez otza; Euskaldun epela, alperrik da orrenbesteko txapela./Gozotasuna; Etxeko epelean batu giñan gau guztian.

Eper.- Txori-mueta bat.

Era.- Modua; Euskaldun era-ra biziteko... euskera gorra ta bera.

Erabaki.- Artuten dan asmoa edo emoten dan epaia:

Erabaki ori artu baiño len, zuurki. / Erabakia artu: Ara joatea erabaki genduan atzoko batzarrean.

Erabat.-Batean; Guztiak erabat galdu ziran.

Erabe.- Lotsatxua: Kendu erabea ta gosea. / Erabe izan: Lotsaz egon: Erabe nintzan ori esaten.

Erabilkor.- Erabiltzeko gai edo errez dana.

Erabilli.- Ibilli-azo, ekiñean jarri: Erabilli euskera ta ez esan gora...

Eragille.- E agiten dauana.

Eragin.-Eginerazo: Barre eragin dauste Baskophobo orreik. Batera ta bestera erabilli; Eragiozu mutil, aurreko danbolin orri...

Eragotzi.- Galazo; Eragotzi daukue biarko jaia. Era-

gotzi euskuen gure erria maitatzea.

Eragozpen.- Eragotzi egiten dauan zerbait; Erdera azkatasunaren eragozpen? Ken, ken...

Eraiki.- Jaso: Jauregi ederra eraiki eban itsasegian.

Erakarri.-Ekarri-arazo: Lurrak gorpuzkiak erakarten dauz

Erakusketa.- Erakutsi-ikus- teko azaltzea, egiketa.

Erakutsi.- Ikusi-azo: Bide txarretik ebillela erakutsi neutson/Agirian jarri; Erakutsi egidazu idazti berrori ori./Ikasten lagundu: Erakutsi niri euskera, aztu gura dot-eta erdera.

Eraman.- Eroan.

Erantsi.- Geitu: Erantsi or beste iru itz. / Egokitu; Egotzi; ez erantsi niri olako gauzak, iñoiz ez ditut egin-eta.

Erantzi.- Jantzia kendu.

Erantzun.- Galderari berea emon.

Eraso.- Oldartu; Etsai gaiztoak eraso ninduen.

Eraso.- Oldarraldi; Kanpotarren eraso utsalak ez gaitue menperatuko.

Erastun.- Elestun.

Eratasun.- Modu ona, era neurritsua; Eratasunez ibiltzen zan beti une larrienetan bere.

Eratu.- Eraz ipiñi; Eratu egidazu apur bat gela au/Gertatu: Jai ederra eratu dogu Pazko-egunerako.

Eratsi.- Bota, lurrera jauzia- zo; Eratsi bear dogu gatz zar ori/Beiai-ta esnea atara: Beiak eratsi dozuz?

Erbeste.-Beste erri bat: Neu be erbestera noanean lagun on bategaz joan gura izaten dot. / Atzerri: Erbestedean il zan.

Erbi.- Abere bularduna, karraskaria, untxiaren antzekoa; Pernando erbitan joan da gu lotan geratu; ark eizatu, guk maniatu.

Erdeldun.- Euskalduna ez dana.

Erdeñu.- Nazka, ezetsia: Erdeñuz begiraten nabe, euskera egiten dodalako erruz.

Erdera.- Euskera ez dana: Gora erdera ta geu aregaz batera!

Erdi.- Zer baten zati bardin bietako bat; Sagar erdia emoidazu. / Umea izan:

Andra ori laster erditzeko da/la, ia: Erdi ilda dago/Diranetik apur bat: Erdi zoro, erdi moro, erdi loro

Erdibana.- Bakoitzak erdia artuta: Erdibana egin genduan Euskalerrria.

Erdibitu.-Bitan zatitu, zati bi egin: Erdibitu irabaziak, zureztat azkenengoak, niretzat lenengoak, badaezpada be.

Erdikin.- Erdizka baiño ez dana: Euskaldun erdikiñā zara zu, batzeko euskaldun, jasateko erdaldun

Erdiko.-Erdian dagoana, dabilena, ari dana: Atzelari aurrelari ta erdiko orra gure ekipo.

Erdizka.-Erdia artuta; Erdizka egin dozu / Alan-olan: Erdizkako bertsoak atara yatzuz.

Erdoi.- Ugerra.

Erdoitu.- Erdoiez bete; Erabilieaz luma erdoitzen ez itxi.

Ere.- Bere, be.

Eredu.-Aragarria: Ez ba'da belu, euskaldun zarrak gure eredu.

Erein.- Azia lurrean bota, sartu: Erein euskaldun-azia berandu baiño len.

«Erein» aldizkari baten izena.

Eremu.-Leku bakarti ta soil-
la; Eremutarrak ezagun
ez zorrak.

Ereñotz.-Lore orlegi-zurizka-
dun zugatza.

Eresi.- Illetako abestia.

Ereski.-Soñua idazteko era-
billitako ezaugarria.



ERESKI

Ereti - Une egokia.

Eretxi.-Epaia, aburua; Eretxi
orrotakoa naz neu be.

Ergel.- Burubako, lelo sama-
rra.

Eri.- Gaxotasuna.

Eriopetu.- Eriotzara galdu.

Eriotz.- Bizitza amaitzea.

Erkin.-Ezereza, akatsduna.

Erle.- Eztia ta argizaria egi-
ten dauzan mamutxa.

Ernai - Bizkor, itzar, zain:
Euskaldunak, egon ernai,
etsaiak nun nai.

Ernari.- Semea sortu ta sabe-
lean dakarren emea: Beiak
ernari dagozan artean ez
dabe esnerik eukiten (Ur-
duliz).

Erne - Bizkor, gertu; Begi-
erne ibilli /Azitik landara
urteten asi: Laster erneko
dira baba oneik be.

Ero.-Burutik egiña.

Eroan.- Leku batetik bestera
aldatu; Eroan emendik
saskeleri guzti orreik./Ja-
san, gogoz artu: Ondo
eroan dau gaixoaldia.

Eroapen.- Gauzak eta nekeak
eroateko almena: Eroapen
andiko gizona, gauza txar-
rretan bere bai.

Erori.- (G) Jausi.

Eroriko.- Jausi, erori egitea.

Erosi.-Zerbaiten trukean, or-
daiñez, artu: Erosi merke
ta saldu garesti, zelako
irabazil

Erosketan.- Erosi egitea; e-
rosten ibiltea; Ez dago a-
ma etxean, erosketak
egiten joan da.

Erotu.- Ero egin.

Erpin.-Albo bi batzen diran
tokia: Mendi erpiñean ari
giñan kanta, baiña bean
lotsa...

Errai.-Soin-zulo andienetako
zatia; Erraietan eroan a-
mak semea.

Erraldoi.- Gizatzarra.

Erramare.- Soloetako esietan
dagoan igarobide txiki-
estua, abarrez egiña.

Errape.- Bei-titia.

Erratu.- Oker egon, okerre-
koa egin: Erratuta zagoz,
ez da olan.

Errauts.-Erre ta gero gauzak
itxiten daben autsa; Egu-
rra errauts biurtu arte erre
bear da.

Erre.-Sutan jarri: Cure etxea
erre dabe. / Sutan suntsi-
tu: Ondakin guztiak erre
bear dira. / Asarre andi-
tan egon: Erreta dago,
galdu daualako.

Errege.- Bakalduna.

Erreka.- Ur lasterra.

Erren - Anka bat eskas daua-
na edo alde batera beste-
ra baiño geiago gorputza
makurtzen dauana./Erren
ibiltea: Badakit nik zein
ankatik daukazu errena.

Erreskada.- Illara; Ipiñi egi-
zuz idaztiak erreskadan
ondo ikusi daitezcan.

Errez.-Neke barik egin daite-
kena. / Modu errezean:
Errez irabazi neutson.

Erri.- Etxe asko batera:
Urrengo erria Kortezubi
da./Bizilagun asko: Or be
eskola bat bear litzake,
erri andia da-ta.

Erriketa.- Erriarekiko jardua:
Erriketa, Aristoteles'en
idazlana ta lelo askoren
etiketa.

Errikoi.-Erriaren alde, erri-
ri emona dana.

Errimin - Erriagazko oroi go-
zo-samiña.

Erro...-Lurrari zugatza josten
dauan zana./Ardatz-tokia:
Atea errotik atara eban.

Errota.- Uruna eioteko lekua.

Erru.-Obenaren erantzukizu-
na: Zure erruz jausi naz.

Errukarri.- Errukia merezi
dauana.

Erruki.-Iñoren gatxagaitik ar-
tutako tamala: Erruki
zaitut, gizajoa. / Erruki
izan: Errukiz ari: Erruki
zaitez nigaz.

Errukior.- Errukiz jokatu oi
dauana.

Errukitsu.-Errukiz beterikoa.

Errukitu -Erruki izan.

Erruz.- Ugari bai ugari: Erruz agertu ziran saguak.

Ertsi.- Itxian ipiñi.

Ertz.- Bazterra; zerbaiten alboa: Bide-ertzean egotzen eskean.

Esakera. Esana: Zure esakera orrek mindu nau. / Esan berezia; Euskal-esakerak eta egiak liburuetan ondo gordeak.

Esale.- Esaten dauana: Esalea entzulea.

Esames.- Zer esana: Atsoen esamesakaitik ez itxi esakera biotzetik.

Esan.- Gogoaz itzez azaldu: Esan egidazu, laztana, zergura dozun. / Esatea: Txar to esanak parkatu.

Esaneko.- Inoren esanetara jartzen dana: Mutil esanekoa zan nire ikaslea.

Eseri.- Jesarri.

Esi.- Inguruko itxia: Esi bat ipintzen noa gure soloan auzoko beiak sartu ez daitez.

Eskabide.- Eskatzeko bidea. / Eskatzen dana: Eskabide zuzena egin dozue.

Eskale.- Eskatzen dauna, dabilena.

Eskar.- Emaria; Agur Maria eskerraz beterik / Mesedebaten alderako nai ona: Eskerrak Jaungoikoari! Eskerrak arin etorri zarala.

Eskari.- Eskatzen dana: Zeure basotik atzo igotzen zan eskari ona zerura. / Eskean datorrena.

Eskatu.- Zerbait emon edo egiteko arren egin; Eskatu ta emongo yatzue.

Eske.- Eskatzea: Diruaren eske egin custan sarri. / Eskatzen; Laguntza-eske etorri zan.

Eskeintza.- Opari bat egitea: Eskeintza eder bat egin neutson ugazabari ta alalan be jaramonik ez Meza-eskeintzatik aurrera ezker, alper dozu mezatarra joatea.

Eskeiñi.- Oparizat emon; Eskeiñi egiozu zeozer, artuko dautsu-ta.

Esker.- Eskar.

Esker-on.- Ongi naia; aldezko gogoaz: Bere eskerrona agertzeko, ekarri askotan esaten eban.

Eskerroneko.- Eskerrak emoten dakiana.

Eskerroneko.- Eskerrak emoten dakiana.

Esku.- Giza-soiñaren atala, eskumuturretik atzamarretaraino doana.

Eskuarte.- Aurrera bizirik edo onik jarraitzeko ondasuna, bidea: Ez neban eskuarterik eta uko egin neutson ikasketa ari.

Eskubide.- Zerbaiterako baimena, almena: Ez dozu eskubiderik izkuntza ori zapaltzeko.

Esku-itxi.- Emoten urria: Ez zaitez esku-itxia izan ta eman euskerarentzat albestean.

Eskumutur.- Eskua besoari lotzen yakon gorputz atala

Es k u p e k o.- Lan-ordaiñez emoten dan gainezkoa: Eskupeko ederra emon neutson neskameari atzo apacian.

Esnatu.- Itzartu.

Esne.- Bulardun-emeak emotemen daben ur zuri-bizigarria.

Esnedun.- Esnea dakarrena. / Esnea saltzen dauana.

Espa.- Atsekabe-miña. / Arrangura.

Espal.- Egur, lasto-lotua; Garia espalka batzen eben.

Esparru.- Inguru esia.

Estaldu.- Zerbait egaz ezkutatatu: Estaldu ondo gorpu ori, ilkintza barik erruki-egintza egiten gabiltzala uste dagien. / Utsunea edo utsa betetu: Oiko bearrizanak estaltzeko asko bear dogu.

Estali.- Estaldu.

Estalki.- Estaltzeko darabilguna edo dana: Kendu egiozu lapikoari estalkia.

Este.- Gorputz-atala, mintzezkoa, urdailletik ipurtzulara doana.

Estropada.- Arraunlarien leia-keta.

Estu - Bape zabal ez dana: Kale estuak dira oneik. / Larri-samar: Estu ibilli nintzan andik urteteko.

Estualdi.- Estu ibiltea: Ez zenduan estualdi makala igaro atzo!

Estutasun.- Estu izatea: Kaleen estutasunak ibiltea galazoten eban / Larrikuntza: A zelako estutasuna nirea; batetik erdera, bestetik prantzera.

Estutu.- Estu egin: Estutu apur bat bide ori. / Larri ibiltea: Ez estutu orregaitik, laster konponduko da dana.

Eta.- Lokarri-itza: Gizonak eta andrak./... Iako: Goazen, berandu da-ta. Gai-xorik egoala-ta, antxe itxi eben bakarrrik./ Gaiñerakoa: Sukaldeko ontziak, platerak-eta apurtu genduzan. Agur Andoni-ta..!

Etekin.- Zerbait edo norbaitengandik ataraten dan onura; Beiak ekartzen ditu/esnerikan gabe/, etekiñikan ezin/kendu iñola're (Errikotxiaren semea Auspoa, 60 - 89'garren orrialdean).

Eten.- Jarduna edo, une baten apurtu, desegin: Berbaldia eten eban, esne otza edateko. Aria eten da, ezin josi geiago. / Bertsioen barruko geldiunea: Amar silabadun neurtitzak hostgarrenean bear dabe etena.

Etorri.- Nunbaitetik oneratu: Etorri ona, maite zaitut-eta./... tatik etorri karta-jokuan): Zetatik dator?

Ezpatatik dator, bota batekoal

Etokizun.- Etorreko dan aldia, jazoteko diran goraberak: Euskalerrriaren etorkizuna zuria ala iluna?

Etsai.- Inorganako borondate txarra dauana;Etsairik ez, zerenik ez.

Etsaitu.- Etsai egin.

Etsi - Zerbaitetzat euki, eritxia emon; Onetsi, be-deinkatu; azketsi, azke itxi, parkatu; ederretsi, ontzat artu. / Itxaropena galdu: Lan egin gurearen alde iñoz be etsi barik.

Ettagun.- Etxe baten jaubea,

Etxe.- Gizonak biziteko lekua

Etxegille.- Etxeak asmau ta egiten dauzana.

Etxegintza.- Etxeak asmau ta jasoteko jakintza. / Etxea egiten ibiltea: Gaur etxegintzan dabiltzanak eskuak garbi ez, ladrillurik ikutu ez arren be.

Etxekotu.- Etxeko lez izatea, artzea: Gure auzo barria be etxekotu yaku. / Etzin andia artu: Etxekotu dirando bi orreik, diran bardiñezakaz.

Etxeondo.- Etxe baten inguruak: Txakurren bildur naz, baiña. Joan lasai, or ez dozu etxe-ondorik igarobear. (Sopelana).

Etixeratu.-Etxera ekarri.joan: Amarretarako etxeratu bear naz. Txal ederra etxeratu dogu peritik.

Etxezulo.-Etxean egotea asko maite dauana:Ori ez da etorriko gaberdiko erromerira, etxezulo utsa da.

Etxeol.- Txabola.



ETXEOL

Etzan.-Etzunda egotea;Eman datza nire aberats-ametsa /Ardatza euki: Ementxe, gai onetantxe datza gure gaizkabide gutzia.

Etzi.- Biar-gerokoan.

Etzidamu.- Etzi-gerokoan.

Etzigaramu.- Etsizidamugero-koan.

Etziluma.- Etzi-gerokoan.

Etzin.- Etzan.

Euki.- Norberantzat izan; Zer daukazu gaur jateko? . . . lakoa euki; Uste izan; Orixe dalakoa daukat nik, baiña, ez daukat beretzako dalakorik mutil ori. (Urduliz).

Eule.- Eunduten dabillena.

Euli.- Ego biko mamutxa.

Eultze.- Erleen bizi-lantokia

Eun.- Amar bider amar: Iru-rogei ta berrogei eun dirra Amarreun edo milla bardin da, Kampion'en eritxiz /Liñuzko edo al-godoizko oiala.

Eundu.- Euna egin.

Euntari.- Eun gudarien buruzagia.

Euntzaille.- Eunak-eta eunduten dauzana.

Euri.- Odeietatiko ura: Euria alean bota eban (Lezama)

Euritan.- Euria daneko unea.

Euritsu.- Euritan ugaria.

Eurrez.- Asko ta asko.

Euzkeldun.- Euskeraz itz dagian

Euskalerria

Araba

Benaparroa

Bizkaia

Gipuzkoa

Lapurdi - Naparroa - Zuberua

Bizkaia, Gipuzkoa ta gure Araba,
eta Naparroagaz lau anaia gara;
Beste aldeko iruragaz batzen gareala,
Zazpirok bear dogu gaur salbau euskara.

(Arrese-Bettia'tar Pelipe)

"EUSKALDUNAK GARA"

Euskarri. - Eutsitea merezi dauana. / Eusteko balio dauana.

Euskera. - Euskotarren izkuntza.

Euskeraztu. - Euskerara itzuli.

Euslari. - Eutsiten dauana.

Eutsi. - Oratu: Eutsi ol orreri, jausiko da-ta. / Gorde: Eutsi gogor euskerari bestela... / Artu: Auxe emon dauste, eutsi erdia.

Ez. - Ukatzeko itza. Ondo zagoz? Ez / Izan ezik; Ori ez, beste guztiak ezagutzen dodaz.

Ezabatu. - Suntsiarazi; Ezabatu daigun erri ori lurgainetik.

Ezaguera. - Ezagutzeko era. / Adimen-almena.

Ezagun. - Lagunartekoa edo ezagutua dana; Nire ezagun guztiak ara deituko dodaz. / Agiria: Ezagun da erdal-errian bizi gareala! / Agiriangoa: Ezagun dozu ondo jaten dozula, lodi-lodi zagoz-eta.

Ezagutza. - Adimenez edo zentzunez barri izan.

Ezagutza. - Ezagutu egitea. / Artu-emona astea edo eukitea: Egun aretantxe gizon orregaz ezagutza egin neban.

Ezain - Itxura eskasekoa.

Ezaindu - Ezain egitea. / Bear ez danerako edo bear ez dan eraz zerbait ibiltea: Ez ezaindu modu orretan gaurko jai andia.

Ezarian. - Geldi-geldika, bestela baitakoan: Ezarian bai arian ikasten goaz.

Ezarri. - Ipiñi.

Ezatasun. - Urez edo bust samarra egotea,

Ezatsu. - Urez-eta busti samarra.

Ezaupide. - Ezagutzeko bidea. / Adigaria: Ezaupide ona emon daustazu nor dan jakiteko.

Ezbai. - Zalantza; Ezbai barik erabagia artu.

Ezbaiko. - Ziur ez dana: Berba asko, egipena ezbaiko

Ezbear. - Bearrezko ez dana: Onezkero azkatasuna ezbear, dana baitago iltzeaz

Ezbear. - Lorraldi, zoritxarra: Ezbearren artean be, buruzut ta gogo zoli iraun.

Ezer. - Zerbait (itaun-baldintzetan): Ezer lortu dozu? Ezer bear ba' dozu.

Ezerez. - Bat bere ez: Ezer irabazi dozu? Ezerez / Gauz -ez: Eutsi, zuretzat, bezuzta ezerez au.

Ezetsi. - Gitxitat euki: Euskerak danak ezetsia, ez dakarrelako andietsia. / Bazertertuta itxi: Nire azkenengo arrazoiak ezetsi zituen.

Ezetz. - Ez: Ezetz igarri? Ezerrako erantzuna: Zer diño, etorriko dala? Ezetz.

Ezeuki. - Txiro, beartsua. / Gabetasuna; Ezeukia laguntzarra.

Ezezagun. - Ezaguna ez dana: Ezezagun bat etorri yatan lantegira.

Ezeze. - Ez bakarrik: Jaietan ezeze, astegunetan be lanean ari da.

Ezeko. - Eza, ezetza; Ezekoak emon dauste gure lan barrirako. / Ezetz-aldekoa: Ezeko keñua egin dausku.

Ezi. - Abereak menderatu. / Gizonak onbidean zuzendu: Semeak azi ta ezi.

Ezikusi. - Ikusi ez bai litzan; Ez ikusiarena egin dau.

Ezin. - Al ez izan; Ezin dot sinistu.

Ezin. - Egin al ez dana; Eziña egiña. Eziñak ez dau legerik.

Ezizen. - Egiazkoaz gaiñera edo kanpora iñori emoten yakon izena: Gure alkatea, Koipe-emoillea ezizenez.

Ezker. - Eskualde bat.

Ezkonbarri. - Ezkontza barria egiñikoa.

Ezkondu. - Andra-gizonak alkarrekiko alkartu.

Ezkontza. - Ezkondu egitea; Ezkontza ta buzkantza berotan.

Ezkorta. - Tellatu gabeko arditegia.

Ezkur. - Arteak damoen igalia. Txarri goseak ezkurra amets.

Ezkutatu. - Estalian jarri.

Ezkutu. - Toki gordea: Jarri zaitez or ezkutuan. / Ixil-gordea: Or ez dago bestelako ezkuturik, dana da argi; euskaldunak auxenai; bizi.

Ezkutuka. - Illunean ta igeska bezela: Gagozan egokeran, gauza guztiok ezkutuka egin bear doguz.

Ezpain. - Ezpan.

Ezpal. - Lasto, abar edo orri-sorta.

Ezpal. - Egurretik ataratako zatia: Ezpal batekoak zari biok; aitaren ezpalekoa dator semea (danak bardin antzekoak).

Ezkatuki. - Gauza sakon-ezkutua: Ezkatuki andia, euskaldunak euskeraz diño egi.

Ezpata. - Izkillu luze-arteza.



E Z P A T A

Ezpel. - Zur trinko-gogorra dauan zugazñoa.

Eztabaida. - Zer edo zertaz bai ta ezka ariketa.

Eztai. - Ezkontza-jai.

Eztanda. - Bat-batean ta zarataz zeozer zatitu egitea.

Eztarri. - Ao-sapai ta gangarraren sarrera-zuloa.

Ezten. - Mutur zorrotza.

Eztenkada. - Eztena sartzea. / Ateraldi zorrotz-zirikagarria.

Ezti. - Erleak egiñiko guna ori-goza. / Bare, bake-tsua: Izketa ezti dau gure agintariak eta ezpata zolia.

Eztitsu. - Gozotasunez betea: Ao eztingsua ta esku pozingsua.

Eztul. - Arnasa zarataz eta ozka ataratea.

Ezuste. - Ustegabekoa.

F

Fardel. - Itxia, arlote samarra: Zer fardel doan ori jantzita! (Lezama).

Firi-firi. - Gozoro-bigunki, ia igarri barik: Aor daukazu uruna firi-firi jausten (Urduliz).

Firu. - Ari (jostekoa).

Foru. - Euskaldunen antxiñako legea: Foru ta oitura zarrak tamalez galdurik (Zamarripa, «Gora Begirara»).

FORUAK

Foru ta oitura zarrak tamalez galdurik,
Euskaldunak zer dauka yagokon gauzarik?

Euskera bakarrik.

Ilten ba'yaku bera, eztoгу besterik!

Maitatu daigun, bada, Euskera Ama Gaurtik

Biotz-biotzetik.

Ezpeite iñoiz aldendu, ez, Euskalerritik!

Zamarripa'tar Paul
(GORÁ BEGIRA'' - 1927)

天